

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Antonio Mardaras Arrieta*

*Maruri-Jatabe,  
Bizkaia (1922)*

Aurkibidea



## Biografia



1922. urtean jaio zen Jatabeko Utxondo baserrian. Gurasoak Jatabekoak zituen: ama Zabalerrota baserrikoa eta aita Olagoitikoa. Sei neba-arrebatan bigarrena izan zen eta etxeko nagusienetakoa izanda, eskolara joan baino lan asko egin behar izan zuen. Hamar urterekin, okin lanetan ibili zen etxerik etxe ogia asto gainean eramaten. Oso memoria ona zuen eta hiru pezeta irabazten zituela kontatzeaz gain, astoarekin gertatutako istorio asko kontatu zizkigun barre artean. Hamalau urte zituela, gerra hasi zen eta oso ondo deskribatu zigun bere etxe gainetik igaro zirenean abioiak tiroka hasi ziren momentu hori. Abioiean idatzita agertzen ziren letrak gogoratzen zituen oraindik ere. Hamazortzi urterekin soldadu bezala eraman zuten. Handik bueltatu zenean, Mungialdeko enpresa batean lanean hasi zen eta beste antzeko enpresa batzuetatik igaro ostean, 1951an, [Arteche](#) enpresan hartu zuten. Ia 20 urtez bertan egon ondoren erretiratu egin zen. 25 urte zituela, Mungian bizi zen Armintzako neska bat ezagutu zuen eta hiru urtez bikote moduan egon ondoren, 28 urterekin ezkondu eta andrearen etxea zen, Mungiako Atxuri auzoan dagoen Estretza baserrira joan zen bizitzen. Bertan, lau seme-alaba izan zituzten.

## Zintak

MJA-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-11-28
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

## MJA-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-12-11
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## MJA-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-12-11
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Goizean ogiak banatu eta arratsaldean eskolara

- **Erref:** MJA-001/004
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### Laburpena:

<p>Gutxi joan zen eskolara. Baserrietara ez zen biderik egoten, eta hamar urterekin hasi zen ogia saltzen baserririk baserri astoarekin, anaia eta bera asto banarekin. Arratsaldeetan joaten zen eskolara. Egunean hiru pezeta irabazten zuten, eta amak diru hori derrigor behar zuen.</p>

#### Transkripzioa

–Eskolara, jataben berton, edo...

–Bai, jataben berton. Eskolara, gitxi joan naz; ta joan banintzen segun maistrok esaten otsen amari ba leiten ikesiko nauen nik ondo; joan banintzen. Bueno oin bere defenditen naz, ezta? baia... Ta ordun baserrittara ez zan egon kamiñorik; kamiño jenerala eon zana Mungitik Plentzira eon zana bakarrik. Eta hamar urte ein barik hasi nintzen astoaz panaderu haittara baserritara, anaia eta biok. Bai, eta gero atsaldetan eskolara, baia gure amak eskolara botateko interesa eukitten euen baia goixien geure beharrak [eukitten genduzen], eta ezin joan. Esan bai maistroak eskolara gehitxuau ia zeaittik ez gaittun botaten ba, baia ezin bota ba, ezin bota, ba. Egunean hiru pezeta irebazi.

–Panadero moduen?

–Panaderuek, bai. Hillean hamazortzi hogerleko, ta geure enbidiez jente asko. Ta orduen eskolara, interesik ez zan egoten eskolarako bere. Ta guk ume-umetan, anaia eta biok asto banagaz; asto bat eukitten gendun beti

eurretik etzean, eta gero bigarrena erosi behar zan. Eta bigarrena erosi, hemeretzi hogەرleko pagata, bigarren astoa; hemeretzi hogەرleko, hilkeko sueldue eta hogەرleko bat gehau.

-Hori dana asto baten.

-Asto baten.

-Mesedie eingo eban?

-Eta bai, derrigor behar gendun ta, bigarrena derrigor behar zan.

## 2. Zakuekin estalita, basaz beteta etxera

- **Erref:** MJA-001/005
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:12:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

Oraingo moduko arropa eta babesgarri barik joaten ziren basoko bideetatik.

Gerra denbora heldu arte ibili ziren ogia saltzen baserriz baserri. Basaz beterik itzultzen ziren; astoari hankak garbitu behar zitzaizkion ez gaixotzeko.

Lantzean behin astoa jausi eta astoa altxa ezinik ibiltzen zen, baten baten laguntza izan arte.

## 3. Hiru eta bi kiloko ogiz betetako saskiak

- **Erref:** MJA-001/006
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:12:42. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

### Laburpena:

Plentziara zihoan okinari itxaroten zioten bide ertzean, astoak kargatzeko.

Saski bereziak zituzten ogiak sartzeko; hiru eta bi kiloko ogiak izaten ziren.

## 4. Ogien prezioa

- **Erref:** MJA-001/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

Okinen arteko eztabaida egon zen ogiaren prezioaren gainean; debekatu egin zuten garestitzea. Orduan ogi handia erosten zuenari ritxe izeneko opiltxo bat oparitzen zioten.

**5. Elur egunetan bakarrik goizean eskolara**

- **Erref:** MJA-001/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Meteorologia

**Laburpena:**

Arratsaldeetan joaten zen eskolara; eguraldi txarragatik edo, berandu helduz gero etxera, ez zen joaten. Elur gehiago egiten zuen antzina, eta elur egunetan ez zen ogia banatzen, astoak ez zuen bidea aurkitzen eta. Orduan joaten ziren goizean eskolara.

**6. Maisu gazteak parrandarako prest**

- **Erref:** MJA-001/009
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Errioxar bat izan zuen maisu ogia banatzen hasi zen arte. Beste hiru ere izan zituen, baina maisuek irakasteko ahalegin handirik ez zuten egiten eta eurek ikasteko gogorik ez.

**7. Errepublikara garaian, jendea kezkan**

- **Erref:** MJA-001/010
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:19:36. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

**Laburpena:**

Gerra etorri arte jendea errebelde ikusten zen. Manifestazioak eta mugimendua zeuden. Bera umea zen eta ez zekien zein zen arrazoia, baina jendea kezkan ibiltzen zela bazekiten. Jataben hogeita-hogeita hamar errepublikano egon ziren. Osaba alkate izan zen; aita EAJko bazkidea. Guardia egin beharra izaten zuen aitak.

## 8. Hilabete ebakuatuta Algortan

- **Erref:** MJA-001/012
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

### Laburpena:

Txakurra utzi zuten bakarrik, eta Algortara ebakatu ziren, osabaren etxera. Itzuli zirenean, hutsik aurkitu zuten baserria. Ganadua ere bertara eraman zuten, eta padurako belar sailetatik eramaten zuten behientzako belarra. Gurdia beteta joan ziren Algortara. Ihesean zihoazenekin beterik ikusten ziren kaminoak.

## 9. Goikoetxea ingeniariarekin elkarrizketa

- **Erref:** MJA-001/013
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Behin joan ziren lehengusuak Jatabeko etxea ikustera, eta bazekiten hutsik zegoela. Bidean kontrolak aurkitzen zituzten. Goikoetxea ingeniaria bidean aurkitu zuten errezeloa dute. Galderak egin zizkien eta eurek erantzun.

## 10. Emandako babesari esker bizirik

- **Erref:** MJA-001/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Bi falangista egon ziren ezkutatuta Jataben, euren auzoan. Osaba alkateak babestu zituen; Franco sartu zenean, Larrinagako kartzelan hilabete egin ondoren, osaba eta aita epaiketari aske utzi zituzten falangista haien bitartekaritzari esker. Hala ere, izan zituzten isunak.

## 11. Txahalak saldu isuna ordaintzeko

- **Erref:** MJA-001/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Diru zuria esaten zioten Euzko Jaurlearitzak sortutako diruari. Baina Franco sartu zenean, balio ez zuenez, diru gabe zeuden. Isunak ordaintzeko bi txahal saldu beharra izan zuten. Urte batzuetan, lagunek ere gorriak zirela eta ez zutela ezertarako eskubiderik esaten zieten.

**12. Inolako laguntzarik ez**

- **Erref:** MJA-001/017
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Udal guztia eraman zuten atxilotuta. Francoren aldekoen baten indarra behar zen epaiketetan. Herrian idazkaria eta parrokoa ziren laguntzeko aukera zutenak, baina ez zuten sekula nazionalisten alde egin. Parrokoak lehengusinari ukatu zion laguntza hiru semeetako bat frontetik etxera ekartzeko. Zaurituta egon arren, eraman egin zuten frontera herritarren batek salatuta.

**13. Trenean isilik joan behar**

- **Erref:** MJA-001/018
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:45:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Eskolan erdaraz egiten zuten. Gurasoek ez zekiten gazteleraz eta ezezagun artean isilik egon behar, inork ez salatzen. Etxean beti egin dute euskaraz.

**14. Inguru guztia metrailatu zuten hegazkinek**

- **Erref:** MJA-001/019
- **Iraupena:** 0:07:26. **Hasi:** 00:45:26. **Bukatu:** 00:52:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Oso ondo gogoratzen du Gernika bonbardatu zutenekoa. Osabari soroan laguntzen ari zela, hasi ziren hegazkinak hirunaka pasatzen eta metrailatu egiten zuten; eurak karkaban ezkutatu ziren; ganadua metrailatzen saiatu ziren baina ez zuten harrapatu. Baserriaren teilatua, berriz, zulatuta geratu

zen. Gero, ganadua zuhaizpean lotu zuten, ikus ez zezaten. Mungian bota zituzten bonba batzuk.

## 15. Baserri atzean egin zuten tunela

- **Erref:** MJA-001/020
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:52:52. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Algortara ebakuatuta joan aurretik, baserri atzeko lurretan egin zuten tunel bat, eta han ezkutatzen ziren hegazkin hotsa entzunez gero. Familia bakoitzak bere ezkutalekua zuen. Algortatik itzuli zirenean bonbek egindako zuloak ikusten ziren. Batez ere Francoren aldekoek botatakoak ziren, besteek ez zuten hainbesteko artilleriarik eta.

## 16. Soldadu italiarrak eta moroak

- **Erref:** MJA-001/021
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:56:04. **Bukatu:** 00:57:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Soldadu italiarrak ziren pasatzen ziren gehienak. Andaluziarren batzuk ere egon ei ziren. Moroak ere pasatu ziren. Gauean kanoikadaka eta egunez hegazkinekin apurtu zuten "burdinazko hesia".

## 17. Hemezortzi urterekin eramaten zituzten gerrara

- **Erref:** MJA-001/022
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:57:25. **Bukatu:** 00:59:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Hamabost urte zituela amaitu zen gerra. Hemezortzi urte beteta eramaten zituzten gazteak soldadu gerrara. Anaia deituta zegoen, baina gerra amaitu zen orduantxe.

## 18. Soldadutzan hiru urtez gosez

- **Erref:** MJA-001/023
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:59:07. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

Hemezortzi urterekin joan zen soldadutzara: Garellanora lehenengo eta gero Somorrostrora. Jatabeko semea zen alferez batek eraman zuen bere konpainiara. Handik koartelera, eta destinoan mugara eraman zuten makiei aurre egiteko; hiru urte soldadu, gosez. Zazpi urte soldadu egondakoak ere egon ziren, lehenengo gerrako urteei gero soldadutzakoak gehitu zizkietelako. Arbi egosia jatera ere iritsi ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-02-20*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com